



I. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA

Bizkaiko Foru Aldundia

Ogasun eta Finantza saila

Bizkaiko Foru Aldundiaren 20/2023 FORU DEKRETUA, otsailaren 21ekoa, zeinaren bidez, erabakitzen baita «Udalekuak 2023» kanpainako udalekuetan eta kanpamentuetan egoteko prezio publikoa ezartzea eta garatzen baitira haren gaineko arauak.

Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, «Udalekuak» udako kolonia eta kanpamentuen kanpaina antolatzen du urtero, Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako foru aldundiekin koordinaturik. Kanpaina horien helburua da aisia eta astialdiaren arloko zenbait jarduera antolatzea, Bizkaiko Lurralde Historikoko umeek natura ezagutzeko eta oporrez gozatzeko.

Kanpaina horretan eskainitako zerbitzuak direla eta, ostatua, janaria, garraioa eta dinamizazioa, besteak beste, beharrezkoa da haien prezio publikoak ezartzea.

Apirilaren 11ko 21/1995 Foru Dekretuaren bidez Bizkaian arautu ziren udalekuetan eta kanpamentuetan egoteko prezio publikoak (izan ere, dekretu horrek udalekuetan eta kanpamentuetan egoteko prezio publikoa ezartzea erabaki eta horren gaineko arauak garatzen ditu); dekretuaren 4. artikuluan jasotzen dira «Udalekuak» kanpainarako prezio publikoa zehazten duten elementu kuantitatiboak.

Arlo honi buruzko azken araudia martxoaren 1eko 16/2022 Foru Dekretua da, zeinaren bidez «Udalekuak 2022» kanpainako udalekuetan eta kanpamentuetan egoteko prezio publikoa ezartzea erabaki eta horren gaineko arauak garatu ziren.

2023ko kanpainarako, «Udalekuak 2023» kanpainaren udalekuetan eta kanpamentuetan egoteko prezio publikoa berrikusi eta eguneratzen da, tarifak zerbitzuaren batez besteko kostu errealerara egokitzeke.

Foru-dekretu hau izapidetzeko, halakoetan dagokion kontrol ekonomikoari buruzko txostena egin da, eta kontuan hartu da zer ezartzen den bi lege-testu hauetan: Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari buruzkoa.

Azaldutakoa dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko foru-diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau:

XEDATZEN DUT:

1. artikulua. — *Xedea*

Hemen zehazten den prezio publikoa aplikatu behar zaie «Udalekuak 2023» kanpainan Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, zuzenean zein hitzarmenen bidez, antolatzen dituen udaleku eta kanpamentuetako egonaldiei dagokie.

2. artikulua. — *Ordaindu behar dutenak*

Prezio publiko hau ordaindu behar dute aipatu instalazioetan egonaldia egiteko esku-bidea ematen zaien pertsona fisikoek.

3. artikulua. — *Kobrantsa*

Egonaldietarako lekua behin betiko esleitzen denetik aurrera izango da ordaindu beharra, betiere dena delako instalazioan egonaldia hasi aurretik.

**4. artikulua. — Elementu kuantitatiboak**

Bat. «Udalekuak 2023» kanpainako prezio publikoa honako tarifa hauen arabera eskatuko da:

Zerbitzua Servicio	Jaiotza urtea Año nacimiento	Txanda Turno	Euros Euroak
Udaleku eta kanpamentuetako egonaldiak Estancia en colonias y campamentos.	2010-2016 bitartean Del año 2010 al 2016 (Biak barne/Ambos incluidos)	7 egun / días	135,00

Bi. Ordaindu behar dutenen arteko batzuei %85eko hoberia aplikatuko zaie prezio publikoaren tarifyan, honako hauei, hain zuzen: behin-behinean kanpamentuetarako leku bat adjudikatu eta «Udalekuak 2023» udako kanpaina arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretua argitaratzen den egunean Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta edo Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrera jasotzen duten familia-unitateetako kideei.

Hiru. Prezio publikoa ordaindu behar dutenen artean, batzuei %30eko hoberia aplikatuko zaie prezio publikoaren tarifyan, zehazki, honako hauei: behin-behinean plaza bat adjudikatu eta «Udalekuak 2023» udako kanpaina arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretua argitaratzen den egunean indarreko legeriaren arabera edozein kategoriatan familia ugartzat onartutako familia-unitateetako kideei, baldin eta aurreko apartatuan adierazitako hoberia aplikatu ez badute.

Lau. Bizkaiko Foru Aldundiak, bere Elkarreragingarritasun-Nodoaren bidez, behar beste informazio eskatu ahal izango die beste erakunde publiko batzuei, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren, Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren eta familia ugariaren hoberiak behar bezala aplikatzen direla egiaztatu ahal izateko.

5. artikulua. — Kudeaketa eta likidazioa

Bat. Euskara, Kultura eta Kirol Sailak egingo ditu prezio publiko honen kudeaketa eta likidazioa. Aipatu instalazioetan egonaldiak egiteko, prezio publikoa alde aurretik ordaindu behar da.

Bi. Prezio publikoa ordaintzeko, haren zenbatekoa sartu behar da Bizkaiko Foru Aldundiak berariaz ezarritako kontu korrontean, lekua behin betiko adjudikatu ondoren eta egonaldia hasi aurretik.

Hiru. Foru dekretu honetan xedatu ez den guztian, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-bilketari buruzko araudian ezarritakoa izango da aginduzko.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA**Xedapen Indargabetzaile Bakarra. — Arau indargabetzea**

Foru dekretu hau indarrean jarrita, indargabeturik geratuko da martxoaren 1eko 16/2022 Foru Dekretua, zeinaren bidez “Udalekuak 2022” kanpainako udalekuetan eta kanpamentuetan egoteko prezio publikoa ezartzea erabaki da eta haren gaineko arauak garatzen ziren.

AZKEN XEDAPENA**Azken Xedapenetatik Lehena. — Arauak emateko gaikuntza**

Baimena ematen zaie Ogasun eta Finantza Saileko eta Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuei foru dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzaten.



Azken Xedapenetatik Bigarrena. — Indarrear jartzea

Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrear foru dekretu hau.

Bilbon, 2023ko otsailaren 21ean.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,
JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ